



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/10/17 Udaletxean 18.00-20:15



Gaurkoan bildu gara,

- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Edurne Huesa (Landarlan)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Joseba Aranburu (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Carlos Gonzalez (Irabazi)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Ordenantza
3. Edukiontzien ordainketaren ebazpena
4. Hainbat gai:
 - a. Iturtxoko puntua
 - b. Hondakinen tasak
 - c. Urdaneta 68
 - d. Oreja parkeko auzokonpostagunea
 - e. Landarlanen eskaera: Lazkaon edukiontzi hori berriak, nork ordainduko ditu?
 - f. Errauskailua
 - g. Oria ibaiaren garbiketa
 - h. Hondakinen prebentzio astea (azaroaren 18tik 26ra)

Aurreko aktaren onarpena

Uztaileko akta onartutzat ematen da.

Ordenantza

TEKNIKARIA: Ordenantza plenoan onartu beharra dago.

BILDU: Gure taldearen hausnarketa bezala, hondakin mahaiari gai asko ari gara deskargatzen. Ordenantzak sustatu behar dira, parte hartzea ere bai baina ordenantza Udaletik atera behar da eta ondoren mahai honetan landu daiteke. Artikuluz artikuluan hau egitea ez da erraza. Ardura gehiegi mahai honetan parte hartzen duten beste eragile eta herritarrentzat. Beste esparru batzuetan parte hartzea eskatu dugu eta ez da egon eta hondakin mahaira berriz, dena iristen da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/10/17 Udaletxean 18.00-20:15



EAJ: Nire saiakera ahal dudan gehiena ekartzea izan da eta denen parte hartzea beharrezkoa dela iruditzen zait. Agian, guk aurretik landuta ekarri dezakegu eta ondoren mahaiari aztertu.

TEKNIKARIA: Baina mahai honetako batzuk landu egin nahi dute eta hori mahai honetan adostu behar da.

BILDU: Oso lan teknikoa da eta juridikoa. Aurretik lanketa hau egin daiteke eta ondoren hemen aztertu.

EAJ: Mahai honetan erabakitzen duguna egingo da.

LANDARLAN: Agian landuago ekarrita errezagoa izango da baina neri interesatzen zait hemen aztertzea.

PSE: Guk borradore bat egin dezakegu eta ondoren, Sasietako Mankomunitatearekin landu beharko da. Baina zein da kompetentea zaintzeko, isunak jartzeko...? Nik argi daukat Udala dela eta guk hau arautu behar dugula. Sasietak egiten duen hondakinen bilketan ezin dugu aldaketarik egin. Isunak ekonomikoak izan beharrean komunitaterako lanak izan daitezke, ordenantza zehaztu ditzakegu komunitaterako lanak.

Guk egiten dugun ordenantza beste udalerrietarako erabilgarria izan behar du. Utzi irekita udalerrri bakoitzak zerbitzua hobetzeko aukera izan dezakeela.

Ordenantza lantzen hasten gara, 5. artikulutik 15. artikulura.

TEKNIKARIA: Kale garbiketako ordenantza landu egin behar dela esan zen eta nik Tolosako ereduak bidali nizuen.

PSE: Ordiziak badu kale garbiketako ordenantza baina isunen atala ez dago eta ezin da isunik jarri. Artikulu batzuk aplikatzen dira.

LANDARLAN: Kale garbiketako ordenantza hau mahai honetan lantzekoa ez da.

BILDU: Bi ordenantza oso ezberdinak dira. Lehenengo hondakinen bilketaren ordenantza eta gero, kale garbiketako landu dezakegu.

LANDARLAN: Kale garbiketako hondakinak sartzea ondo dago baina ordenantzako beste gai guztiak ez.

BILDU: Biak batera ezin dira egin. Hondakinen mahaiari da, hondakinen ingurukoa bakarrik izan behar du.

PSE: Ordenantzako artikulua batetan azaldu behar du hondakinen bilketa Udaleko kompetentzia dela eta ondoren, hondakinen bilketa hau delegatu egiten dela.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/10/17 Udaletxean 18.00-20:15



TEKNIKARIA: 2. artikuluan jarri beharko zen Udala dela kompetentea.

PSE: Zaintza, ikuskaritza eta isunak jartzea Udalaren kompetentzia izan behar du.

TEKNIKARIA: Ordenantzan isunak azaltzen dira baina estatutoetan ez dute hau ondo zehaztuta.

BILDU: Sasietako ordenantza Udalak berea bezala hartzen du.

PSE: Baina Sasietak ez du zaintzen ezta ikuskatzen.

TEKNIKARIA: Sasietak Ordiziako isun batzuk jarri ditu, isunak ez dira ordaindu eta ezin dute ezer egin, beraien estatutoetan ez dutenez jarrita bilketa ejekutiboa ezin dituzte hurrengo pausoak eman.

PSE: Galdetzen du hau juridikoki aztertu zutenean ea ez al ziren konturatu.

TEKNIKARIA: Itsasoko udalerria Sasietan sartzen denez, estatutoak aldatuko dira eta bilketa ejekutiboarena zehaztuko dute.

PSE: Ordenantza guztietan zaintzeko eta ikuskatzeko kapazitatea munizipalak dute. Ordenantzan hau zehaztu beharko litzateke.

ORDENANTZAN

Artikuluaren aurretik herritarrak dituzten kompetentziak eta obligazioak hasieran bildu beharko lirateke.

Debekuen kapitulua: Hauen arabera gero isunak jarriko dira. Lehenengo esan ezin direla egin eta ondoren dagokion isuna.

Hondakinen prebentzio plana mahai honetan landu beharko da eta hau ordenantzan zehaztuta utzi.

Hurrengo bileran 15.artikulutik 25. artikulura egingo dugu lanketa

Edukiontzien ordainketa

TEKNIKARIA: Sasietari bidaltzeko idatzi bat prestatu nuen, Irabaziko Carlos-ek zehaztutako puntu guztiekin eta Sasietara bidaltzea adosten da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/10/17 Udaletxean 18.00-20:15



Hainbat gai

ITURTOKO PUNTUA

Puntu hau Garagartza plazara mugitzea eskatuko da.

HONDAKINEN TASAK

2017ko tasak onartu dira eta hurrengo urteeko tasak definitzeko gaia mahai honetara ekartzea pentsatu dugu.

Guk aurretik gaia landuko dugu, beste udalerrietako tasak aztertuz eta ondoren mahai honetara ekarriko dugu aztertzeko.

BILDU: laz arrandegietan ajuste bat egin zen. Beraien arteko proportzioak aztertu behar dira. Beste udalerrietako tasak eta ratioak aztertu behar dira.

URDANETA 68

Ordizia eta Beasaingo mugan dagoen puntua da. Igande gauetan traste zaharrak gainezka egiten dute espaloian, astelehenetan egiten da traste zaharren bilketa. Igandero dagoen arazoa da. Igandetan municipalak ez daude.

Puntua mugitu daiteke, bigilantzia jarri, kamara bat jarri daiteke kale horretan..... soluzioa ez da erraza.

OREJA PARKEKO AUZOKONPOSTAGUNEA

Puntu hau parke baten ondoan dago eta umeak barruan jolasten ibiltzen dira. Honengatik, bizilagun batzuk puntu hau kentzea eskatu dute.

Hondakin mahaira gonbidatu dira bizilagun hauek baina ez direla etorriko esan dute. Ondorioz, Joseba eta biok beraiekin elkartuko gara.

LAZKAOKO EDUKIONTZI HORIAK

Lazkaok edukiontzi horiak aldatuko ditu baina nork ordainduko dituen ez dakigu. Galdetu dugu baina ez digute erantzun.

Sasietako Udaleko ordezkariak (Ordizia Orain eta Bildu) hau galdetzea eskatzen dugu.

Beasainen ere aldatu dira eta Sasietak ordaindu duela uste dugu.

ERRAUSKAILUA



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/10/17 Udaletxean 18.00-20:15



GHKri informazioa eskatu zaio (4 alditan) eta bere erantzuna honako hau izan da:

“Zure kontsultarekin erlasionaturiko gaiak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bere Batzarraren baitan izapidetu ditu. Hau horrela izanik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko ordezkari diren Batzarkideek, zure e mailan mahaiganeratzten dituzun gaiei buruzko informazio guztia dute. Beraz, zure Mankomunitatera jotzera iradokitzen zaitugu”.

Sasietari galdetu nion eta bere erantzuna:

“Aukera bakarra GHKra bertara joan eta espediente aztertzeke eskatzea litzateke. Baina hori gure ordezkarietako batek egin beharko luke”.

LANDARLAN: Hurrengo bilerako gai ordenean sartu gai hau, denen artean lantzeko.

ORIA IBAIAREN GARBIKETA

Lazkao eta Beasainek ekimena egin nahi dute baina Goiekitik bultzatzea ez dute nahi, ondorioz ekimenari ezezkoa eman diote.

PSE: Eskualdeko talde bat badugu, hau erabili egin behar da. Gizarte zerbitzuekin ere berdin gertatzen ari da.

Ordiziak ekimena bultzatuko balu beraiek parte hartuko luketeela esan zuten.

Goiekiko kontseiluari ekimen hau egiteko eskaera egingo zaio. Goiekiko arduradunarekin ere harremanetan jarriko gara.

HONDAKINEN PREBENTZIO ASTEA

1. Argazki-rally antzeko bat plaza ingurua, Barrena, gaztelekua..... azaltzen duena zein egoeratan geratzen den asteburu gauetan. Goizetan dena garbituta dago eta ez da ikusten. Ondoren, argazki hauek jarri ikastetxeetan, kalean,..... Asteburu osoa utzi garbitu gabe edo garbitu jendea dagoenen. Ostiral gauekoa ez garbitu larunbat eguerdirarte. Asteazken eguerdian, azoka eta gero, plaza ere oso zikina geratzen da.
2. Errefusaren karakterizazioa egin.
3. Hondakinak garbigunera eramateagatik opari bat eman.

Hurrengo bilera

Azaroko bilera: azaroaren 28an arratsaldeko 18:00etan.